Bizkaiko Foru Aldundiaren _____ren _____(e)ko ___/2017 Foru Dekretu Proiektua, Bizkaiko Foru Aldundiaren urriaren 23ko 161/2001 Foru Dekretua indargabetzen duena. 161/2001 Foru Dekretuaren bidez, zerga-ordainketako inprimakien eta zergei buruzko agerkarien salmentako prezio publikoak aplikatzea erabakitzen da eta preziooi buruzko arauak ezartzen dira.

Proyecto de Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia /2017, de de , por el que se deroga el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 161/2001, de 23 de octubre, por el que se acuerda la aplicación y se desarrolla la regulación del precio público por la venta de impresos tributarios y publicaciones de carácter tributario.

Ogasun eta Finantza Sailaren helburuetako bat da erraztasunak ematea herritarrei beren zerga-betebeharrak ahalik eta errazen bete ditzaten; horretarako, mekanismo arin, argi eta eraginkorrak erabiltzen ditu, eta zerga-betebeharrak betetzeak eragiten dituen zeharkako kostuak murrizten ditu.

El Departamento de Hacienda y Finanzas tiene entre sus objetivos el de facilitar a la ciudadanía el cumplimiento de sus obligaciones tributarias mediante la utilización de mecanismos ágiles, sencillos y eficaces, con reducción de los costes indirectos derivados de su cumplimiento.

Helburu horri begira, azken urteotan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia etengabe erabili da zergapekoen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailaren arteko zerga-harremanetan.

En línea con ese objetivo, la incorporación de las tecnologías de la información y la comunicación a las relaciones tributarias entre las personas contribuyentes y el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia ha sido constante en los últimos años.

Sailaren administrazio elektronikoko zerbitzuen garapenak arrakasta handia izan du zergapekoen artean, eta haien erabilera oso handia izan da. Gainera, abantaila handiak ekarri dizkie bai Foru Ogasunari bai herritarrei. Bestalde, administrazio

Este desarrollo de los servicios de administración electrónica por parte del Departamento ha tenido una gran aceptación y uso masivo por parte de los y las contribuyentes y ha supuesto, además de importantes ventajas tanto para la Hacienda

elektronikoko zerbitzuek erabilera papera desagertzea eragin du, apurka-apurka eta oso azkar.

Foral como para la ciudadanía, la progresiva y acelerada desaparición del papel.

Neurri berri hori administrazio elektronikoa bultzatzeko estrategia horren barruan kokatzen da; neurri hori ezartzen denean, Bizkaiko Foru Aldundiaren web orriaren inprimakiak PDF formatuan baino ez dira egongo, erabiltzaile ez profesionalek gehien erabiltzen dituzten inprimakiak izan ezik (inprimaki horiek doan eskuratu daitezke Foru Ogasunaren bulegoetan).

Dentro de esta estrategia de impulso de la administración electrónica se enmarca esta nueva medida, que va a suponer que con carácter general los impresos solo estarán disponibles en PDF en la Web de la Diputación Foral de Bizkaia, salvo los impresos de mayor uso por parte de los y las usuarias no profesionales, que se facilitarán gratuitamente en las oficinas de la Hacienda Foral de Bizkaia.

Neurri horren bitartez, batetik, Ogasun eta Finantza Sailaren baliabide teknikoen eta giza baliabideen optimizazioa lortuko da, betiere ematen duen zerbitzu publikoaren arloan; bestetik, gure lurraldearen garapen iraunkorraren estrategiari lagunduko dio, Bizkaiko Foru Aldundiak hartua baitu horretarako konpromisoa.

Esta medida permite además una optimización tanto de los recursos técnicos como humanos del Departamento de Hacienda y Finanzas, en el ámbito del servicio público que presta, además de contribuir a la estrategia de desarrollo sostenible de nuestro territorio, con la que la Diputación Foral de Bizkaia se halla comprometida.

Foru dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin da: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

La tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Asimismo se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren ekimenez eta Gobernu Kontseiluak 2017ko azaroaren __(e)ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren,

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día de de 2017,

HAU XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

Artikulu bakarra *Indargabetzea urriaren 23ko 161/2001 Foru Dekretua, zeinaren bidez zerga-ordainketako inprimakien eta zergei buruzko agerkarien salmentako prezio publikoak aplikatzea erabakitzen den eta preziooi buruzko arauak ezartzen diren.*

Artículo único. *Derogación del Decreto Foral 161/2001, de 23 de octubre, por el que se acuerda la aplicación y se desarrolla la regulación del precio público por la venta de impresos tributarios y publicaciones de carácter tributario.*

Foru dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, indargabetuta geratuko da urriaren 23ko 161/2001 Foru Dekretua, zeinaren bidez zerga-ordainketako inprimakien eta zergei buruzko agerkarien salmentako prezio publikoak aplikatzea erabakitzen den eta preziooi buruzko arauak ezartzen diren.

A partir de la fecha de entrada en vigor del presente Decreto Foral queda derogado el Decreto Foral 161/2001, de 23 de octubre, por el que se acuerda la aplicación y se desarrolla la regulación del precio público por la venta de impresos tributarios y publicaciones de carácter tributario, así como cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el mismo.

Azken xedapenetako lehena. *Indarrean jartzea.*

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Azken xedapenetako bigarrena. *Arauak emateko gaikuntza.*

Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bilbon, 2017ko (a)ren (e)an.

Disposición final primera. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Disposición final segunda. *Habilitación.*

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

En Bilbao, a de de 2017

Ogasun eta Finantzen foru diputatua
El diputado foral de Hacienda y Finanzas

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia
El Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ